


# panpano **ZIRI**

2019ko Abendua    Aresoko Aldizkaria



**Iragana eta oraina,  
etorkizuna josteko  
hariak**

**ENGRAXI MARZOL, 100 URTE**

**ADUR ETXEZARRETARI ELKARRIZKETA**

**KORRIKA 21**

**SASTIBELTZEKO GARBILEKUA ETA UDALETXEA**

**ARESOKO AUZOEN ETA BASERRIEN MAPA**

**ETA GEHIAGO...**

## zenbaki honetan



Gurekin harremanetan jartzeko:  
[laga@iparmank.eus](mailto:laga@iparmank.eus)

Diseinu eta maketazioa:  
[astidiseinua.com](http://astidiseinua.com)

Aldizkaria idatzi eta osatu duen lantaldea:  
**Ana Goñi, Jaione Olazabal, Juana Mari Saizar, Uxue Goikoetxea, Eneritz Iraola eta Aresoko Udaleko Euskara Zerbitzua.**

Argazkiak:  
**Amaia Iparragirre, Maitane Gereño, Eneritz Iraola eta Uxue Goikoetxea.**

LG NA 2710-2017

**AURKEZPENA 3**

**ENGRAXI MARZOL, 100 URTE 4-6**

**KORRIKA 21 7-9**

**ARESOARREN IZENAK 10-11**

**GARAI BATEKO ARESO 12-15**

**ELKARRIZKETA: ADUR ETXEZARRETA 16-19**

**GELA BERRIA NAZABAL ESKOLAN 20**

**SASTIBELTZEKO GARBILEKUA 21-23  
ETA UDALETXEA**

**ARESOKO AUZOEN ETA 24-25  
BASERRIEN MAPA**

**ARESOARREI GALDEZKA 26**

**DENBORA-PASAK 27**

**ZEIN IZEN JARRIKO ZENIOKE ARESOKO 28  
FESTETAKO AZKEN EGUNARI?**



# Iragana eta oraina, etorkizuna josteko hariak

**H**emen dugu PANPANOZIRI aldizkariaren bosgarren zenbakia. Oraingoan ere, besteetan egin dugun bezala, garai bateko Areso eta gaur egungoa erakutsi nahi izan ditugu. Garai bateko irudiak eta protagonistak, baina baita gaur-gaurkoak ere. Izan ere, gure herria hori da, iragana, oraina, eta baita etorkizuna ere.

Aldizkaria irakurtzen hasten zarenean atzera egiteko aukera emanen dizuten testigantzak, aipamenak eta irudiak aurkituko dituzu: Engraxi Marzolek 100 urte egin ditu aurten, eta berak kontutakoaren bitartez beste garai batzuetako biziak ezagutu ditzakegu. Ohi bezala, bosgarren zenbaki honetan ere garai bateko Aresoko irudi ederrak ekarri ditugu, herria –eta herritarrak– nola aldatu diren erakutsiko digutenak, eta gogoia atzera

eramanen digutenak. Eta aldaketaz ari garela, herritarron izenak ere nola aldatu diren ikusiko duzu, Areson garai ezberdinetan jaiotako izenen zerrenda osatu baitugu, aldaketa horren lekuko.

Atzera begirako ariketa hori osatzeko, herriko bi gune edo eraikin ezberdinei begiratu diegu, eta eraiki zireneko dokumentu batzuk ekarri ditugu. Sastibeltzeko garbilekua eta udaletxeaz ari gara, hain zuzen ere. Horiek egiteko, gutxienez, planoak eta dirua beharko zen, eta bi kontu horien berri ekarri dizuegu.

Eta iraganaz gain, jakina, orainari ere begiratu diogu: eskolak ireki duen gela berria, aurtengo Korrikako irudiak, Adur Etxezarreta eskiaren munduan egiten ari den ibilbidea, Aresoko auzoen gaurko izenak eta mapa, aresoarren gaurko izenak, aresoarren iritziak... Horiek guztiak

gaurko kontuak dira, denak ere, hala espero dugu behintzat, zuen interesekoak.

Iragana eta oraina aipatu ditugu aurkezpen honen hasieran. Bada, eskolako gela berrian dabilzan umeak, eta azken urteotako izenen zerrendan agertzen diren horiek izanen dira, hain zuzen ere, Aresoko etorkizuna.

Hementxe duzu aldizkaria, beraz, orain zure txanda da, irakurtzen eta gozatzen hasteko. Gogoan izan, bestalde, kontrazalean Aresoko festetako azkeneko egunari izena jartzeko proposamen batzuk bildu ditugula, eta helbide bat jarri dugula, nahi izanez gero zuk ere zure proposamena egiteko. Horretara animatu nahi zaitugu eta, bide batez, gonbidatzen zaitugu aldizkariaren inguruko beste edozein iritzi eman edo proposamen egitera. Esan bezala, zure txanda da.



## Engraxi Marzol Labaien GUTXI BATZUEK LORTZEN DUTEN ZENBAKI BOROBILA

Engraxi Marzol 100 urte bete zituen egunean.

**E**hun urte. Horiexek bete zituen apirilaren 16an Engraxi Marzol Labaienek. Belaunaldi baten ordezkari da, duela mende bateko bizimoduaren erakusle. Bizitza besteak zaintzen eman duten horien adibide. Izan ere, bere bizimodua hitz bakar batean laburbildu beharko balitz: *zaintzailea* hitza aukeratuko lukete

gehienek. Etxekoei laguntzeko lehenbizi, bizimodua aurrera ateratzeko neskame lanetan gero. Erditu ez bazen ere, seme-alabarik ez zaio falta Engraxiri.

1919an Otsaidan jaio zen eta zortzi senide bizi ziren baserrian: «gurasoak, Juana Mari eta Joxe Migel, izeba Francisca eta bost anai-arreba: Joxepa, Bixente,

Pello, Ixabel eta ni». Baserri handi xamarra zen beraiena eta umetatik aritu behar izan zuen lanean: «jostatzeko denbora gutxi izaten genuen, eskolatik atera eta etxera lasterrean lanera joan behar izaten genuen». Denean lagundu beharra izaten zuten, baina ukuluko lanetatik ihes egi-ten saiatzen omen zen: «kanpoko lanetan



1972. urtean Maribel ilobaren ezkontzan.



Juana Mari Labaien, Engraxiren ama.



Joxe Miel Marzol, Engraxiren aita.



65 urterekin Benidormen.



1981. urtean Bixente ilobarekin.

aritzen nintzen gehiago, ukuiluko lanak ez zitzaizkidan batere gustatzen». Jorran ere aritzen omen ziren, «beharko!», eta Areson garia egiten zen garaiak ere gogoan ditu: «garia ere egiten genuen eta herrian gari soroak nola izaten ziren gogoan dut. Garia jo, bildu eta makinarekin haizatzen genuen. Makina bakarra izaten zen orduan eta etxe batetik bestera pasatzen genuen». Hala ere, kontatu digu amak hala nahita hamalau urtera arte eskolan ibili zirela anai-arreba guztiak: «gure ama zenak ez zuen eskolarik eta gu bidaltzeko enpeñoa izaten zuen. Bera joaten

zen sorora, baina seme alabak joan zitezela eskolara».

Bizimodu gogorra izan dutela dio, gerra garaiak bizitzea ere tokatu zitzaion, baina ez du oroitzapen oso txarririk: «goserik ez genuen pasa, baserria nahikoa indartsua zen eta jana izaten genuen». Hori bai, gaur egungo bizimoduarekin alderatua gauzak asko aldatu direla dio argi: «ez genuen uririk, ezta argirik ere. Nire amak Lodosan zuen ahizpa bat monja eta Tuteran bestea. Hauek ikustera joateko ez zuten biderik, ez kotxerik, ez dirurik... urteak egon ziren elkar ikusi gabe».

### Libre bizi nahia

Oso fededuna izan da beti, baina bizitzeko gogoak indar gehiago izan zuen bizimodu aukeratzeko orduan: «ez nuen monja sartu nahi izan, ez zitzaidan bizimodu hori gustatzen. Nik libre bizi nahi nuen». Ez zen arrazoi bakarra izan: «oso presumida nintzen eta prestatuta, txukun jantzita eta makillatuta ibiltzea gustatzen zitzaidan».

Etxean laguntzen aritu zen ahizpak bere beharra izan zuen arte: «hogeita zortzi urte bete arte etxean aritu nintzen etxeko-lanak egiten eta Ixabel, ahizpa, Gereño-nera ezkondu zenean berari laguntzera



joaten nintzen. Eguna han pasatzen nuen eta gero Otsaidara bueltatzen nintzen». Izango zuen laguntza guztiaren beharra, «10 urtean, sei seme-alaba izan zituen ahizpak». Engraxik segitzaile bat baino gehiago izan zituen arren, ez zen ezkondu: «mutil asko saiatu eta gainean ibili ziren, baina ez nuen gustukorik topatu».

Ezkondu ez eta monja sartu nahi ez zuten emakumeek ez zuten aukera askorik garai hartan: «berrogeita hamar urterekin, haurrak kozkortu zirenean, Villabonara joan nintzen neskame, hiru seme-alabako familia batera. Gero handik Hernanira eta Tolosan ere aritu izan naiz zaintzaile».

Gaur egun Tolosako Egoitza batean bizi da eta sasoiko dago Engraxi. Ehun urte bizkar gainean izanagatik, ez du geldirik egoteko asmorik. Familiako kideek esan digutenez, «haruntza eta honuntza ibiltzea gustatzen zaio. Egunero mezara joan izan da eta gaur egun ere bere kabuz joaten da». Garai berrietara ere ederki egokitu omen da «ederki ibiltzen du mugikorra!». Bere burua asko zaindu izan omen du: «ariketa asko egin eta gutxi jan» eta Engraxik berak dionez, «ongi zaindu eta erreztatuta» iritsi da 100 urte izatera.





Belaunaldi berriak ere korrika.

ARGAZKIA AMAIA IPARRAGIRRE

## KORRIKA 21

# Nahiz eta Aresotik ez igaro, aresoarrak bertan izan ziren

**A**pirilak 8, astelehena, astea go-gotsu hasteko aitzakiarik ez genuen falta. Eguraldiak ze joera hartuko zuen igaro genituen eguneko lehen orduak. Azkenean, bazirudien gure nahiak entzunak izan zirela eta azkenean esan liteke giroak lagundu zigula.

Arratsaldeko lehen orduan, eskolako haurrekin Korrika Ttikian parte hartzeko aukera izan zen, hitzordu nagusirako motorrak berotzeko aukera aparta. Ikasle nagusienek hasieratik heldu zioten pankarta eta lekukoari, Lehen Hezkuntzako txanda bide erdian heldu zen eta ttikienek, berriz, Loidi parean. Giro ederrean amaitu zen Korrika Ttikia. Lekukoak zekarren me-

zua irakurri -21 urte hauetan erabili izan diren Korrikako lelo ezberdinez osatutako mezua, hain zuzen ere-, eta Nazabal eskolako ikasle zein irakasleek eskainitako dantzarekin esan genion agur egun berezi honetako lehen zati honi.

Aurtengo Korrikan, parte ez hartzeko aitzakia gutxi genuen orduategi alde-tik bederen. Arratsaldeko 6ak pasatxoan iristekoa zen Korrika Leitzako erdigunera. Orduategi ezin hobea haur, gazte zein helduek parte hartzeko euskararen aldeko ekimen hunkigarri honetan. Aresoko eragile ezberdinek bi kilometro erosi genituen eta hortxe geunden Erasoten, Uitzu bideko aldapa gogorrari gogotsu heltzeko prest.

Gure haurrak ezin egonik, irribarrez, kantari, saltoka genituen, minutu batzuetako atzerapenari aurre eginez. Nabaria zen urduritasuna beraien aurpegietan. Helduok ere kirio berdinak sentitzen genituela ezin uka. Azkenean, iritsi zen unea, antolaketa-kotxeak eta furgonetak pasa ziren, berriek ziren Korrika bertan zenaren lekuko. Arratsaldeko 18:27 ziren eta Mikel Zabaleta, Leitzako alkatearen eskutik iritsi zen Erasote auzora. Zenbaki borobila aurtengoan, 1000. kilometroan pasa zien lekuko gure hurrei. Zitzu bizian abiatu ziren aldapan gora, han ez zen nekerik, metro dexente igaro ziren, Gorkari pasa zioten arte. Beste kilometro bat geratzen zitzaigun



Korrika jendetsua.

ARGAZKIA AMAIA IPARRAGIRRE



Eutsi goiari!

ARGAZKIA AMAIA IPARRAGIRRE



Klika, hemen dago Korrika.

oraindik. 1001. kilometroa. Sasoiko zegoenak Eden udal ordezkariari lagundu zion, baita aresoarren azken metroetan lekukoa eraman zuen Imanoli ere. 2 kilometroren ondoren berriro Leitzakoen eskuetara pasatu zen. Oraindik kilometro mordo bat zuten egiteko igandean Gasteizera iritsi aurretik. Aurtengoz gureak hemen izan zuen amaiera, gehienek hauspoek nahikoa zela esan zuten, nahiz eta Lekunberriraino joan zenik ere bazen tartean.

### Jende gutxiren ahotik entzun arren, zenbaten ahotan azaltzen den

Harrigarria benetan, euskaldunok nahita edo nahi gabe, barneratua dugun hirugarren postu hori. Badela bata, badela bira eta gu garelako bestea, hirugarrena, alegia.

Aurtengo Korrikan, Maialen Lujanbiok izan zuen lekukoan gordeta zeraman mezua idazteko eta irakurtzeko ohorea. Behin eta berriz entzun ondoren perfektua zen; olerkia, bertsoa, filosofia, aldarria, dena uztartua zuen idatzia. Txapela kentzeko moduko idatzia zirudien horrek, ordea, eman zuen biharamuneko Euskadi irratiko Faktoria saioan zer esana.

Mezuaren zati batean Maialen erakundeei zuzentzen zaie:

*"Norbanakoak, egin, herri mugimenduak eragin, Erakundeek **eginarazi** eta eginez, eraginez eta eginaraziz..."*

Bada, bertako kolaboratzaile bati, nahiz bere esanetan Maialenen mezurakin ados egon, bitxia iruditu omen zitzaion erakundeei zuzentzerakoan **eginarazi** aditza erabiltzea, eta mezua entzun edo irakurtzeko aukerarik izan ez zuen zenbait jenderi **"eginarazi aditza polemikoa suerta zekieekela"** adierazi zuen.

Niri ere goiz osorako zer pentsarazi eman zidan **eginarazi, arazi**, aditz **arazle** horrek. Beronen hainbat erabilpen ikusaraziz eta norberak eman nahi dion erabilpen honen arabera, aditz honen hartu dezakeen zentzu positibo zein negatiboan sakonduaraziz.

Lehenik, neroni harritu ninduen kolaboratzaile horri, Maialenek idatziak zituen hainbat mezuetatik zergatik eman zion arreta **"erakundeek eginarazi"** esaldi horrek, agian oharkabean **"errudun"** sentiarazi ote zuen?





Korrika ttikiko lekukoaren zain.



Tipi-tapa, tipi-tapa, korrika.

Zerk eragiten ote digu, geurea dena al-darrikatzea, defendatzea, zalantzan jarraztea. Nola liteke, nola digute sinistarazi, sartarazi, norberaren herrian, norberaren hizkuntza erabiltzea araztea, behartzea dela, horrek duen zentzu txarrarekin? Nola ulertarazi, zenbaitetan gure hizkuntzak duen balioarekiko dugun gabezi hori, ez dela sana eta hein handi batean jarrera horrekin beste indartuarazi besterik ez dugula egiten?

Aldiz, zenbat bider izan dugu, esparru pribatu zein publikoan, familian, lagunartean, komertzioetan, osasungintzan, administrazioan... behartzearekin lotzen dugun **arazi** hori jasan beharra? Guri, geure herrian, geure hizkuntzan bizi nahi dugunoi, edaraz (gaztelaniaz zein frantsesez) entzu-

naraziz, idataraziz, pentsaraziz, hitz eginaraziz, hau da, erdara erabiltzea behartuaraziz? Bidenabar, geurea dena, Euskaraz, aditzera, irakurtzera, mintzatzera, jolastera... galaraziz. Gal araziz, geurea geurean galdu araziz.

Hemen ikusten da gure hizkuntza zein den aberasgarri, erabilgarri, interesgarri, baliagarri... aditz bakar bat zenbateraino izan daitekeen aldagarri, segun eta non, noiz eta nola nahi den erabili.

Beraz, ez gaitezen konplika eta konplexuak uxatuz egin dezagun euskaraz eta betirako egin klika! Maialenek zioen bezala " hizkuntza ez da edukitzekoa, lizuna egiten zaio gordeta, lika. Beraz, klika! Instalatu Eta klika!!!!

## 21.KORRIKA

Hemen da, badator 21.KORRIKA. Apirilaren 4tik 14ra Garestik Gas-teiza luzatuko den zubia, Euskal Herriko auzo, herri, hiri eta bazterrerretan gure hizkuntzaren aldarrria lau haizetara zabalduko duen ekitaldia.

Graxi sorgiñaren majiaz, euskara jalgi hadi plazara, auzora, herrira, hirira... Txillardegi gogoan, berak zioen bezala, herri batek hizkuntza beharrezkoa duelako eta euskara delako Euskal Herriaren ezaugarri, egin diezaiozun, KLIKA EUSKARARI!!!

Denok, maite dugulako, gure herria euskaraz, Euskal Herria korrika. Herri bat garelako, hizkuntza bat dugulako, euskaraz eta kitto!

Ez dadila folklore hutsean geratu hizkuntz eder honen erabilera, egunerokotasunera eraman eta zaindu dezagun gure arbasoek mendeetan utzitako altxorra. Mundu bat euskarara bilduz, eman diezaiozun euskara elkarri, zu eta ni euskaraz, belarriprest edo ahobizi zaren horri, kanpotik etorri eta esku zabalik hartu zaitugun hori, euskaraz bizi nahi dugun herrira ongi etorri eta heldu hitzari, lekukoari, elkarlanari, hizkuntzari, herriari eta zuk ere esan bai EUSKARARI. Gu-txi batzuk, asko edo agian denak izan gaitezen maitatuz, ikasiz eta ariz euskalakari.

Izan bedi EUSKARA zeurea, neurea, gurea. Bera baita herri honen ondarea. Herri bat gara geroa lantzen, saia gaitezen Euskal Herria euskalduntzen. Eta zuri, EUSKARAZ entzun nahi ez diguzun horri, herriaren erantzuna sarri.

Hi! Entzun adi, adi! Baga, biga, higa! Tipi Tapa Tipi Tapa, egin zak/n KLIKA, eta etor hadi gurekin KORRIKA!!! Egin KLIK, IKIMILIKLIKLIK!!!! (*Irrintzia*)

Hey Nazabal, nola da? Esaiezue, nola da?

Gure erritmora  
KLIKA, korrika, KLIKA  
gure erritmora  
KLIKA KORRIKA KLIKA  
KORRIKA!!!

# Aresoarren izenak

**A**resoarren izenak, bistan da, asko aldatu dira urteen joan-etorrian. Denok izanen ditugu gogoan gure aitona-amonen izenak, eta zeinen ezberdinak ziren gaurko izenen ondoan. Garai bateko Ángel Pascual, Emiliana, Manuel Vicente, Francisca eta gisakoak desagertu egin dira gaurko haurren izenen artean, eta gaur egun oso bestelakoak izaten dira, gehien-gehienetan izen euskaldunak.

Aldaketa hori 1970. hamarkadan gertatu zen, 1977. urtetik aurrera batez ere. Ondorioz, hortik aurrera, aresoarren izen ia guztiak euskaldunak dira eta, normalean, baita lehengoak baino laburragoak ere, izen konposatuak jartzeko ohiturarik ez baitago gaur egun.

Aldaketa horren lekukotasuna emateko, udal-txean dauden erregistro-liburuetatik aresoarren izenak atera ditugu. Garai ezberdinetakoak jaso ditugu, hainbat urtetakoak, eta horietako batzuk ekarri ditugu ondoko tauletara, aldaketa ikus dadin, eta atzoko eta gaurko aresoarren izenak nolakoak ziren eta diren ikus dadin.

Urteren bat erregistrotik jasotzeko modurik izan ez dugunez, informazioa gure ezagutzarekin osatu behar izan dugu. Izen guztiak hemen daudela uste egin baldin badigu, barkamena eskatzen diogu izen horren jabea den lagunari.

\* Tauletan horitik grisera pasatzen denean, esan nahi du urte batetik hurrengora pasatzen ari garela. Hurrenkera goitik beherakoa da, alegia, taula zutabeka irakurri behar da, goitik beherako ordenan. Adibide gisa, lehendabiziko taula honetan, 1928an jaiotakoak dira Carmen, Joaquín, María Isabel, Juliana, José Antonio, Ángel Pascual, Juan José, Juan, María Ángeles, Felisa eta Manuel Vicente, 1929. urtean Emiliana eta José Antonio bitartekoak, eta 1930. urtean Francisca, Juan Fermín, María Esther, José María, Santiago, María Joaquina eta Martín José.

## 1928., 1929. ETA 1930. URTEETAN JAIOTAKOAK

Carmen	Juan José	Lorenzo	José María	José María
Joaquín	Juan	Dionisia	Beatriz	Santiago
María Isabel	María Ángeles	Joaquina	José Antonio	María Joaquina
Juliana	Felisa	José María	Francisca	Martín José
José Antonio	Manuel Vicente	Manuela	Juan Fermín	
Ángel Pascual	Emiliana	Juan Bautista	María Esther	

\* 1930eko María Estherren kasuan, erregistroan irakur daitekeen izen osoa hauxe da: María Esther, Blanca, Dominica y Benigna.

## 1947., 1948., 1949. ETA 1950. URTEETAN JAIOTAKOAK

M <sup>a</sup> Resurrección	José Joaquín	M <sup>a</sup> Concepción	M <sup>a</sup> Isabel Joséfa	Juana M <sup>a</sup> Mercedes
Juan	Miguel José	M <sup>a</sup> Luz Joaquina	Román Joaquín	Lorenzo Miguel
María Luz	José	María Luisa	Juana Joséfa	Miguel Ant. Toribio
María Jesús	Luis María	Francisca	Eufemia	Ignacio
Francisco	Ignacio Javier	Manuel Juan	Joaquín Ignacio	Juan
Micaela	Ana María	José Ramón	María Anastasia	
Ignacio	M <sup>a</sup> del Carmen	Miguel Antonio	José Ignacio	
María Carmen	Fermín	María Dolores	Vicente	
Juan	María Jesús	Luis	Juan Cruz	

\* Grisez daudenak 1948. eta 1950. urtean jaiotako izenak dira.

Ángel Pa

BEÑAT

LOREN

Dionisi

Ty  
Santi

JON

ARA

FELIS

Iñaki

Mar

Franc

JUAN

ED

ascual

Iruñe

NZO

ia

Txomin

Iago

TZ

Gorka

SA

ia Luz

Oier

isca

OURNE

## 1967., 1968., 1969., 1970. ETA 1971. URTEETAN JAIOTAKOAK

Juan Esteban	Manuel María	José Joaquín	M <sup>a</sup> Inmaculada	Javier
M <sup>a</sup> del Carmen	Juan Fermín	María Aránzazu	Tomás	
María Iciar	Jesús Javier	María Idoia	Idoia	
José Ramón	Domingo	José Ángel	Margarita	

## 1972., 1973., 1974. ETA 1975. URTEETAN JAIOTAKOAK

José	Mikel	M <sup>a</sup> Esther	Elisa	Cristina
Jaione	Sandra	Garbiñe	José Javier	Roberto
Eduarne	Ana M <sup>a</sup>	Eva	Iranzu	
Joaquina	Iñaki	Javier	Estibaliz	

\* 1976. urteko erregistroan ez da jaiotzarik jaso.

## 1977., 1978., 1979., 1980. ETA 1981. URTEETAN JAIOTAKOAK

Txomin	Mikel Aingeru	Pedro	Nerea	Asier
Iruñe	Joseba	Nerea	Jaione	Juan Esteban
Miguel Mari	Jon	Olatz	Arkaitz	
Mikel	Leire	Maria Goretti	Iban	

## 1982., 1983., 1984., 1985., 1986., 1987. ETA 1988. URTEETAN JAIOTAKOAK

Jon	Igor	Iñaki	Oiana	Nahiara
Maribel	Unai	Mikel	Maitane	Txomin
Itxaro	Xabier	Nahiara	Xabier	Itxaso
Ur	Eden	Haran	Uxue	

## 1992., 1993., 1994., 1995., 1996., 1997., 1998. ETA 1999. URTEETAN JAIOTAKOAK

Gorka	Aingeru	Saioa	Oihana	Mikel
Lorea	Josune	Adur	Garikoitz	Andone
Aintzane	Xabier	Izar	Olatz	Saioa
Zuriñe	Mikel	Ane Miren	Jokin	Maidier
Irantzu	Anartz	Ane	Jon	Oier
Pedro José	Mikel	Arkaitz	Ainhua	

## XXI. MENDEAN JAIOTAKOAK

Beñat	Mikel	Eunate	Enea	Nahikari
Aitor	Maialen	Andrea	Jare	Alen
Rubén	Soraya	Laia	Aiert	Oihan
Unai	Alba	Aimar	Maren	Elorri
Aimar	Ibai	Aratz	Abel	Amaiur
Uxue	Jon	Andoni	Luka	Maddi
Jokin	Odei	Naroa	Enara	Araitz
Irati	Izaro	June	Arhane	Kattalin
Naia	Nerea	Intzara	Aroa	María
Erika	Haizea	Sara	Laia	June
Hegoi	Maddi	Anne	June	

# Garai bateko Areso

Aldatu da Areso urteen joan-etorrian, herriko argazki zaharrak ikusi besterik ez dago. Herriaren itxura, kaleak, etxeak... Eta aresoarrak. Lehen gazte zirenak orain helduxeagoak, jakina. Eta garai bateko janzkerak, orrazkerak eta itxura oro har, zeharo desberdina da gaur egun. Hala erakusten digute argazki zaharrek, eta polita da, eta interesgarria, horiei begira jartzea. Egunez egunekoan ez gara hainbeste ohartzen aldaketez, baina argazki zahar hauei begira bai. Goza itzazu, beraz, eta ikusi nolakoak ziren garai batean Areso eta aresoarrak.



Emakumeak txerriak eta umeak zaintzen.



Igandean neskak paseoan.




Herriko festetan umeen jolasak.



Orain etxeak dauden tokian, arto eta gari soroak ageri dira argazkian. Pentsa ezazue, hirurogeita bost bat urteren bueltan no-la aldatu den herria...



Neskak, jai egun batean, eskusoinuarekin.



Silo aurrean Azpikoetxeko gazteak.




Patxikuneko aurrean gizeen eta apaizen bilkura.



Neskak, lagunak, plazan eserita.



Lagunartekoak meza ondoren herrira eskera.



Peruneko Lontxo zaldi txuri gainean.



Festetan kroseto saria banatzen.



Lehen jaunartzea, 1950 inguruko kintoak.

# Adur Etxezarreta Rezola

## ELURRETAN ARRASTOA UTZIZ



Adur Etxezarretak bost urterekin jantzi zituen aurrenekoz eskiak.

**G**ustuko tokian aldaparik ez dela izaten esan ohi da. Adur, ordea, gainbehera zenbat eta handiagoa izan, orduan eta gusturago ibili ohi da. Bost urte zituenean jantzi zituen eskiak aurrenekoz eta barruraino sartu zitzaion kirol honekiko harra. Hamasei urte zituenean erabaki zuen eskiatzaile izan nahi zuela eta gogotik saiatu da amets horri eusten. Hogeita hiru urte ditu eta dagoe-

neko mundu osoko eski pistetan arrastoa uzten ari da.

### Noiz jantzi zenituen eskiak aurrenekoz?

Bost urterekin, Formigalen. Gurasoak urtean pare bat asteburutan joaten ziren eskiatzera eta beraiekin ikasi nuen. Gustuko nuen oso eta nire adineko umeak lasterketetan parte hartzen nitue-

nean aitari esaten nion nik ere hori egin nahi nuela. Hainbeste aldiz esan nien... Azkenean, Nafarroako Federaziora deitu zuten hemen inguruan zer aukera zeuden jakiteko.

### Orduan hasi zinen Nafarroako eski taldean?

Bai, bederatzi urterekin. Gurasoek Federaziora deitu zutenean Candanchun entre-





**Abiadura bizian, aldapa ikusgarriak jaisten ditu.**

natzen zutela esan zieten. Proba bat egin eta eski taldean sartu nintzen.

#### **Nola moldatzen zinen entrenatzeko?**

Astez herriko beste umeekin batera joaten nintzen eskolara eta asteburuetan entrenatu eta lasterketaren bat zegoenean batera edo bestera joaten ginen. Horrela aritu nintzen DBH 3ra arte. Urte hartan negua Jakan eman nuen eta bertako eskola batean egin nuen ikasturtearen zati bat. Hurrengo urtean junior mailara pasa nintzen eta behin maila horretara iritsita, goi mailan egoteko, errendimendu altuko zentro batera jo behar izaten denez, Sierra Nevadako zentroan sartzeko probak egin nituen. Zorionez, aukeratua izan nintzen eta sei urtez han aritu nintzen.

#### **Adin horretan, erabaki hori hartzea ez zen erraza izango.**

Ez da erraza, hamabost urterekin etxetik kanpo hainbeste denbora eman beharra, teknifikazio-zentro batean sartzea... Familiakoentzat ere ez da erraza, baina beti izan

ditut ondoan babesten eta alde horretatik oso eskertua nago. Zailtasunak zailtasun, serio horretan aritu nahi baduzu ez dago beste aukerarik. Nik oso argi neukan hau zela egin nahi nuena.

#### **Zein modalitatetan moldatzen zara hobeto?**

Junior mailan hasieran modalitate guztiak egiten nituen, baina abiadura probetan espezializatu naiz. Erraldoian eta slalom probetan ongi moldatuagatik, abiadura probetan beti hobe ibili naiz. Eskiatzaile moduan eta fisikoki ditudan ezaugarriak egokiagoak direlako edo.

#### **Noiz hasi ohi dituzu entrenamenduak?**

Urtero programa aldatzen bada ere, denboraldi-aurrea ekainean hasten dugu. Normalean Frantzia eta Suitzako glaziarretan edo Hego Ameriketara egiten ditugu entrenamenduak. Lehenengo lasterketara 50-60 eski egunekin joaten saiatzen gara. Lasterketa denboraldia, berriz, azaroan hasten dugu eta apirilean bukatu. Hor lasterketak

eta entrenamenduak tartekatuz behar izaten ditugu, tokiaren arabera. Prestakuntza fisikoari dagokionez, berriz, bakoitzak bere etxean egiten du, prestatzaileak bidaltakoaren arabera. Aurtengo denboraldia Kanadan hasi dut azaroaren 30ean.

#### **Teknikazio-zentro batean zaudetenean zein da zuen egunerokoa?**

Goizean oso goiz jaikitzen gara eta lau bat orduz entrenatzen dugu pistetan. Bazkaldu, atsedean hartzeko tarte bat hartu eta lauak aldera gimnasioan edo ordu eta erdi inguruko saioa egiten dugu. Espainiako Neguko Kirol Federazioan ari naizenetik abiadura probetan bakarrik oinarritutako prestaketa jasotzen dut. Entrenamenduak ere egunei eta lasterketa-egutegiari dagokionez, osoagoak dira eta baliabide materialak, entrenatzaileak.. eskurago ditut.

#### **Alderdi fisikoa eta teknikoak lantzea garrantzitsua izango da...**

Abiadura handiko probetan aritzen naiz, Erraldia asko entrenatzen dugu eta Slalo-



Denboraldi luzeak egin behar izaten ditu etxetik kanpo eta gustura bueltatzen da herrira.

ma tarteka ere bai. Gorputza landuta izatea komeni zaigu, lesioak ekiditeko edo erortzen bagara kaltea txikiagoa izateko. Suarekin jolastan denak erretzeko arriskua du. Psikologikoki ere prest egon beharra dago: emaitza jakin batzuk lortzeko presioa kontrolatu eta lesioren bat izanez gero zulotik ateratzeko indarra behar duzu.

#### **Zuk ere sufritu dituzu...**

Hamazazpi urterekin, belauneko tendinitis batekin hasi nintzen, eta gehiagora joan zen. 2015-2016ko denboraldia zen. Fisioterapia bidez sendatzen saiatu ginen, baina minez segitzen nuen. Denboraldia amaitu eta ebakuntza txiki bat egitea adostu genuen. Lau hilabetez itzuliko nintzela esan zidaten. Egunero joaten nintzen errehabilitaziora, baina lau hilabete pasatu eta okerrago nengoan. Berriro ere medikurengana joan eta infiltrazioak egiten hasi ginen, baina dena okertu egin zen. Ia hamar hilabete joan zitzaizkidan bidean.

Berriro ere ebakuntza egitea erabaki genuen. Ebakuntza gogorra izan zen, eta ia beste urtebete galdu nuen. Konturatzerako ia bi urte pasa ziren.

#### **Ez zen erraza izango.**

Bi urte horiek oso zailak izan ziren. Urte garrantzitsuenetan, lehiakideak aurrera egiten ari zirela ikusten nuen eta ni kanpoan nengoela ikustea ez zen erraza izan. Psikologikoki oso gaizki pasa nuen.

#### **Zer sentitu zenuen berriz ere eskien gainean jarritakoan?**

Gogoan dut, aurreneko aldirian minez jarraitzen nuela. Momentu hartan dena bukatu zela pentsatu nuen baina ez nuen etsi. Entrenatzailearengana joan eta berriro ere entrenatzen hasi behar nuela komentatu nion, horrela ezin nuela jarraitu. Pixkanaka hasi nintzen taldean sartzen eta lanera bueltatu eta ez zait ahaztuko Sporten irabazi nuen Super Erraldoiko proba.

Denboraldia ondo bukatu nuen eta berriz ere neure burua lehian ikustea izugarria izan zen. Sariak, garaipena, emaitza onak lortutakoan momentu zailak ahaztu eta ahaleginak merezi izan duela ikusten dugu eta hori garrantzitsua da.

#### **Otsailean munduko eski txapelketan izan zinen Aren (Suedia).**

Esperientzia aberasgarria izan dela esan dezaket, miretsi izan ditudanen ondoan egotea berezia izan da oso, egia bihurtutako ametsa. Haiengandik ikasteko aukera izan nuen.

#### **Lortutako emaitzekin pozik al zaude?**

Munduko txapelketako debuta ez da erraza. Super erraldoian linearekin akats bat egin nuen eta ez nuen amaitzea lortu. Jaitsiera proban, berriz, 40. izan nintzen. Momentuan ez nintzen gustura geratu, batez ere jaitsiera libreko proba hobeto egin nezakeela sentitu nuen. Baina ho-

tzean pentsatuta, aurreneko munduko txapelketa nuen eta gazteenetakoa nintzen.

### Denboraldi bukaerara arte batetik bestera ibili zara...

Bai. Ondoren, Italian izan nintzen Sarentinoko Europako Kopan, Champoluc-Antagnoden eta Sella Neveako FIS lasterketetan. Otsail bukaeratik martxo hasiera bitarte Errusian egon nintzen eta handik zuzenean Frantziara jo nuen Les Orreseko lasterketak egiteko. Ondorengo Frantziako lasterketak Auronen eta Espainiakoa Baquiera Bereten egin nituen eta denboraldia Tigneseko (Frantzia) lasterketekin bukatu nuen apirilaren 5ean. Aurre-denboraldia Txilen, Austrian eta Suitzan egin dugu, Austrian ere izan naiz eta azaroaren 30ean Kanadan hasi dut denboraldia.



2009-2010 denboraldian Sierra Nevadako Espainiako txapelketan.

### Ederki bizi zarela adituko duzu askotan...

Ezin naiz kexatu, nahi dudan horretan ari naizelako, baina dena ez da hain ideala. Jendeak uste du kanpoan egoten naizenean turismoa egiten aritzen naizela, baina ez da horrela. Gu entrenatzera, konpetitzera, lanera joaten gara. Ez dugu tokiak bisitatzeko aukera gehiegirik izaten. Eta kanpoan ibiltzea polita da baina kanpoan dabilenak etxekoa faltan botatzen du. Pentsa, neguan hogeita hamar bat egun baino ez ditut pasatzen nik herrian.

### Zein dira, etorkizunera begira, zure buruari jarri dizkiozun erronkak?

Urtetik urtera, helburu txikiak jarri eta horiek lortzen saiatzen naiz. Urrutira gehiegi begiratu gabe, momentua bizi dut. Europako kopako zirkuito osoa egingo dut aurten eta Munduko Kopako hiru bat probetan ere lehiatuko dut, goian egoten saiatuko naiz.

### Eta Olinpiar Jokoak aipatuz gero?

Kirol askotan maila altuenera iristea da Olinpiar Jokoetan lehiatzea. Hurrengoak Txinan izango dira, Pekinen, 2022an. 26 urte izango ditut orduan eta aukera ona izan liteke. Orain arteko garapenarekin jarraitzen baldin badut, eta lesioek errespetatzen banaute, aproposa da hurrengo Olinpiar Jokoen data.



Umetatik aritu da lehian eta hainbat garaipen lortuak ditu.

# Gela berria Nazabal eskolan



**A**reso herri txikia da, baita bertako Nazabal eskola ere. Txikiak, bai, baina baita ederrak eta garrantzitsuak ere, noski. Eskola txiki askotan bezala, gurean ere adin ezberdinetako haurrak taldetan elkartuta daude, eta Aresokoan, hain zuzen ere, hiru dira taldeak: Haur Hezkuntzako taldea alde batetik, 1., 2. eta 3. mailakoak bestetik eta, azkenik, 4., 5. eta 6. mailakoak. Jakina, urtetik urtera ziklo bakoitzeko haur kopurua ere aldatuz joaten da, eta horretara ere egokitu behar izaten da.

1., 2. eta 3. mailako haurren gela nahikoa txikia izaki, moldaketa bat egitea erabaki zen: irakasle gela eta laguntza gela zirenak elkartu, eta gela handiago bat sortu. Obra hori udan egin zen eta ikasturtea hasterako prest zegoen.

Gela berria eginda, eskolako bizitzako protagonista nagusiei, eskolako haurrei alegia, gela berria zer iruditzen zitzaien

galdetu zitzaien. PANPANOZIRIKO artikulua honetan iritzi horien berri eman nahi dizuegu, haurrek esandakoa hitzez hitz jasota, eta irudi batzuk lagunduta.

## **Nazabal eskolako haurren iritziak**

Hementxe daude, hitzez hitz, eskolako haurren iritziak. Txikienen iritzia jaso dugu aurrena, eta 1-2-3. eta 4-5-6. mailakoena ondoren.

- Mahaiak daude.
- Liburuak daude.
- Paretan marrazkiak daude.
- Telebista dago.
- Gela handia da.
- Oraingo gela handiagoa da.
- Askoz gela handiagoa da.
- Gelako kolorea gustatzen zait.
- Oraingo gela oso handia da.

- Gela hau politte da.
- Gela honetan ongi pasatzen da.
- Oraingo gela politagoa da.
- Oraingo gela handiagoa da.

- Ni gela berrian urduri xamar sentitu naiz zarata asko zegoelako.
- Nik gela berrian ezinegona sentitu dut soinu asko zegoelako.
- Gela berrian agobiatuta sentitu naiz lekurik ez zegoelako marrazteko.
- Estresatuta sentitu naiz arbela txikiegia zelako.
- Nik gela berrian goxotasuna sentitu dut liburua irakurtzerakoan.
- Ni gela berrian harrিতuta gelditu naiz oso polita delako-
- Ni gela berrian lasai sentitu naiz denak ezagutzen nituelako.
- Ni pozik ibili naiz beste irakurtzen.
- Gelan pozik sentitu naiz gustatzen zaidalako.



# Sastibeltzeko garbilekua eta udaletxea

**A**rtxiboko karpeta zaharrak astintzen hasi eta mende bat egin dugu atzera. Hori da hain zuzen ere "Sastibeltzeko garbilekuak" 2017an bete zuen denbora, mendea. Eta gauza bera herriko udaletxearekin eta herriko eskolarekin ere, izan ere, 2022an eta 2024an beteko dute mendea. Atentzioa eman digu orain dela ehun urte ere eraikin bat berritu edo egiteko gaur egun bezalaxe proiektua, enkantea, esleipena eta abar egiten zituztela ikus-teak, eta txukun asko daude orduko diru kontuak oraindik ere artxiboetan.

## Sastibeltzeko garbilekua

Azken urteetan "labaderoa" bezala ezagutu izan dugu eta turista askoren bisita jasotzen du gaur egun herriko garbilekuak. Ur frexko eta gardena dator orain ere bertara eta antza denez bi proiektu prestatu zituzten egiterakoan; azkenean, oraingo itxura aukeratu zuten. 1916an egin zuen proiektua Miguel Berasalucek eta 1917an burutu zen obra egiteko enkantea, Jose Muguerza alkate zela.

1917ko ekainean bukatu zuten obra eta guztira 25.46,51 pezeta kostatu zen.



???????????

???????????


## Udaletxea

Hasieran hiru solairuko proiektu bat egin bazuten ere, 1922ko abuztuan aurkeztu zuen Manuel Ruiz de la Torre arkitektoak oraingo itxura izango zuen udaletxearen proiektua. Obra esleitzeko enkantea 1923an egin zuten Jorge Eraso alkate zelarik eta Bautista Sucunza izan zen kontratista. Hasiera batean lurra atara eta lur horrekin udaletxe inguruko bideak bete zituzten eta ondoren egin zuten udaletxea eraikitzeko obra. Guztira 46.375,35 pezeta kostatu zen eta 1924an bukatu zuten eraikitzeko lana.





Hasierako proiektua.


### BEHIN BETIKO PROIEKTUA




Udaletxearen aurreko fatxada.



Ezker aldeko fatxada.



Barruko alde. Kartzela ere bazuen.



Eskuin aldeko fatxada.

DIRU KONTUAK



Liquidacion de las Obras de la  
Casa Consistorial de la  
Villa  
de  
Arreso

Liquidacion de las obras de la Casa Consistorial de Arreso  
Excepcionales habidas por variacion en la marcha de las  
trabajos autorizada en su dia, ya ejecutados.

Medios de Ejecucion.	Ejecucion de
<u>Despensa de maderas y carpenteria.</u>	
14 m 7,50 m 12 m de maderas para carpenteria...	25.000
2 m 4,50 m 12 m de maderas para carpenteria...	15.000
2 m 4,50 m 12 m de maderas para carpenteria...	15.000
2 m 4,50 m 12 m de maderas para carpenteria...	15.000
2 m 4,50 m 12 m de maderas para carpenteria...	15.000
2 m 4,50 m 12 m de maderas para carpenteria...	15.000
Total despensa 105.000	
<u>Despensa de albañileria.</u>	
2 m 4,50 m 12 m de albañileria para muros...	12.000
2 m 4,50 m 12 m de albañileria para muros...	12.000
2 m 4,50 m 12 m de albañileria para muros...	12.000
2 m 4,50 m 12 m de albañileria para muros...	12.000
2 m 4,50 m 12 m de albañileria para muros...	12.000
Total despensa 60.000	
<u>Distintos.</u>	
2 m 4,50 m 12 m de distintos para...	4.000
2 m 4,50 m 12 m de distintos para...	4.000
2 m 4,50 m 12 m de distintos para...	4.000
2 m 4,50 m 12 m de distintos para...	4.000
2 m 4,50 m 12 m de distintos para...	4.000
Total distintos 20.000	
Total de todas las obras 185.000	

Trabajos de Carpinteria.

1 m 2,50 m 12 m de carpinteria para...	15.000
1 m 2,50 m 12 m de carpinteria para...	15.000
1 m 2,50 m 12 m de carpinteria para...	15.000
1 m 2,50 m 12 m de carpinteria para...	15.000
1 m 2,50 m 12 m de carpinteria para...	15.000
1 m 2,50 m 12 m de carpinteria para...	15.000
Total carpinteria 90.000	
<u>Revoques Exteriores.</u>	
1 m 2,50 m 12 m de revoques para muros...	10.000
1 m 2,50 m 12 m de revoques para muros...	10.000
1 m 2,50 m 12 m de revoques para muros...	10.000
1 m 2,50 m 12 m de revoques para muros...	10.000
1 m 2,50 m 12 m de revoques para muros...	10.000
1 m 2,50 m 12 m de revoques para muros...	10.000
Total revoques 60.000	
<u>Tabiquerias.</u>	
1 m 2,50 m 12 m de tabiquerias para...	5.000
1 m 2,50 m 12 m de tabiquerias para...	5.000
1 m 2,50 m 12 m de tabiquerias para...	5.000
1 m 2,50 m 12 m de tabiquerias para...	5.000
1 m 2,50 m 12 m de tabiquerias para...	5.000
Total tabiquerias 25.000	
<u>Torreones.</u>	
1 m 2,50 m 12 m de torreones para...	10.000
1 m 2,50 m 12 m de torreones para...	10.000
1 m 2,50 m 12 m de torreones para...	10.000
1 m 2,50 m 12 m de torreones para...	10.000
1 m 2,50 m 12 m de torreones para...	10.000
Total torreones 50.000	

Albañilerias.

1 m 2,50 m 12 m de albañileria para muros...	15.000
1 m 2,50 m 12 m de albañileria para muros...	15.000
1 m 2,50 m 12 m de albañileria para muros...	15.000
1 m 2,50 m 12 m de albañileria para muros...	15.000
1 m 2,50 m 12 m de albañileria para muros...	15.000
1 m 2,50 m 12 m de albañileria para muros...	15.000
Total albañilerias 90.000	
<u>Carpinterias de interiores.</u>	
1 m 2,50 m 12 m de carpinterias para...	10.000
1 m 2,50 m 12 m de carpinterias para...	10.000
1 m 2,50 m 12 m de carpinterias para...	10.000
1 m 2,50 m 12 m de carpinterias para...	10.000
1 m 2,50 m 12 m de carpinterias para...	10.000
1 m 2,50 m 12 m de carpinterias para...	10.000
Total carpinterias 60.000	
<u>Entarimados.</u>	
1 m 2,50 m 12 m de entarimados para...	5.000
1 m 2,50 m 12 m de entarimados para...	5.000
1 m 2,50 m 12 m de entarimados para...	5.000
1 m 2,50 m 12 m de entarimados para...	5.000
1 m 2,50 m 12 m de entarimados para...	5.000
1 m 2,50 m 12 m de entarimados para...	5.000
Total entarimados 30.000	
<u>Cielos-Rayas.</u>	
1 m 2,50 m 12 m de cielos-rayas para...	5.000
1 m 2,50 m 12 m de cielos-rayas para...	5.000
1 m 2,50 m 12 m de cielos-rayas para...	5.000
1 m 2,50 m 12 m de cielos-rayas para...	5.000
1 m 2,50 m 12 m de cielos-rayas para...	5.000
1 m 2,50 m 12 m de cielos-rayas para...	5.000
Total cielos-rayas 30.000	







helpbidea

ID 🏠 A-Z

180482	E-3	Alkotzenea
180467	B-4	Alkotzko borda
19475	C-2	Amalur
180493	B-3	Analdeko borda
180485	F-4	Arrixipia
180862	C-6	Azintzin
180865	F-5	Barberoneko Borda
180487	F-5	Belaku
180451	C-4	Bordan Borda
180477	E-2	Eberrea Borda
180486	E-4	Enekortiz
19479	C-2	Epeleta
180473	C-1	Errandonea Borda
180462	B-3	Etxeberriko Borda
180470	B-4	Felipe Borda
180484	E-3	Garaikoetxea
180866	F-5	Garaikoetxeko Borda
180479	D-2	Garroko Borda
180466	C-3	Gereñonea
180457	B-6	Ibiur
180471	B-4	Iruñegi
180453	C-5	Jauregienea
180472	C-2	Juantonea Borda
180481	E-3	Kortatu
180460	C-5	Lizardi
180474	C-2	Luisenea Borda
180461	D-5	Maingonea
180480	D-2	Martiñoneko Borda
180483	E-3	Olatxeta
180867	E-4	Olatxetako Borda
180469	B-4	Otsaidako borda
180468	B-4	Pedronea
180454	B-5	Pittonea
19477	D-1	Polainenea Borda
180475	C-1	Santa Kruz Baseliza
180463	C-3	Santurua
180476	D-2	Sastizar
180464	D-5	Semeroa Borda
180456	B-6	Sutegi
180455	C-5	Telentxonea
180864	B-2	Telleriko Borda
180459	C-5	Txillenea
180465	B-3	Txuinea



Industrialdea



Ur araztegia · Depuradora



Ur biltegia · Deposito agua

## Auzoak

✉	<b>Belaku</b>
1	Arrixipia
2	Enekortiz
3	Belaku
4	Barberoneko Borda
5	Garaikoetxeko Borda
6	Olatxetako Borda
✉	<b>Epeleta</b>
1	Amalur
2	Juantonea Borda
3	Epeleta
4	Errandonea Borda
5	Luisenea Borda
6	Santa Kruz Baseliza
✉	<b>Erreka</b>
1	Bordan Borda
2	Jauregienea
3	Pittonea
4	Telentxonea
5	Sutegi
6	Ibiur
✉	<b>Itturrieta</b>
1	Kortatu
2	Alkotzenea
3	Olatxeta
4	Garaikoetxea
✉	<b>Olarte</b>
1	Etxeberriko Borda
2	Santurua
3	Analdeko borda
4	Telleriko Borda
5	Txuinea
✉	<b>Otarre</b>
1	Gereñonea
2	Alkotzko borda
3	Pedronea
✉	<b>Otarre-Elutseder</b>
1	Otsaidako borda
2	Felipe Borda
3	Iruñegi
✉	<b>Sakulu</b>
1	Txillenea
2	Lizardi
3	Maingonea
4	Semeroa Borda
5	Azintzin
✉	<b>Urrizpialde</b>
1	Sastizar
2	Eberrea Borda
4	Polainenea Borda
5	Martiñoneko Borda
6	Garroko Borda



Eliza · Iglesia



Bus



Larrua · Cuero



Landa Etxea · Casa rural

zehir, baina askotan ez dugu zehazten jakin zein kale edo auzotan dauden... Udalak auzo eta kaleen izenak berrantolatu egin ditu, baserri eta etxe bakoitza non kokatzen den garbi utziz.

Auzoak izendatzeko, bestalde, hainbat irizpide hartu dira kontuan: oinarri historiko bat izatea, gaur egun eremu eta parajeek dituzten izenak aintzat hartzea, eta toki izenak gaur egun dauden bideei egokitzea. Horiek guztiak aztertuta, bederatzi baserri-auzotan banatu dituzte baserri eta bordak: Belaku, Epeleta, Erreka, Itturrieta, Olarte, Otarre, Otarre-Elutseder, Sakulu eta Urrizpialde.

Baserrien berrantolaketa onartua dagoenez, hemen duzue mapa berria, auzo eta baserri guztien izenekin. Udalak eskuartean darabil herriko etxe eta auzoen berrantolaketa ere, hori datorren zenbakirako geldituko da. Ea aurrerantzean baserri eta auzoen izenak behar bezala ikasi eta erabiltzen ditugun.

### Baserrietan identifikazio plakak

Eta auzoen berrantolaketa horretaz gain, Nafarroako Gobernuak "Helpbidea" izeneko proiektua ere jarri du martxan larrialdi zerbitzuak baserri guztietara iristea ahalbidetzeko. Proiektu honen bidez etxe guztientzako identifikatzaile bat sortu da gerora Osasun zerbitzuen, Foruzaingoaren, suhiltzaileen eta oro har babes zibilko taldeen eskura egongo dena, behar izanez gero ahalik eta erantzun azkarrena eman ahal izateko.

# Zein jolasetan jolasten zinen ume zinenean?



## CARMEN ARRAIAGO

Dena lasterka ibiltzen ginen. Ez zegoen jostailurik orduan. Txingoan eta albiden ibiltzen ginen, mutilen eskolako trinketeko leihoetan saltoka goitik behera eta behetik gora... terribleak ginen. Lasterraldi ederrak egindakoak gara. Eskolatik atera umetan eta iluntzeetan salbea izaten zen. Bitartean jolasten ibiltzen ginen. Salbera ere joaten ginen. Han albiden jolasten ginen batzuetan, elizara igo eta azkeneko kanpaikada jo baino lehenago Santuruko Bordaraino joaten ginen eskapo, zeinek harrapatu gu han? Gero azkeneko kanpaia jotzen zuenean lasterka berriz salbera itzultzen ginen, harrien gainetik, poteka... eta ailegatzten ginen errosariora, e? ez ginen nekatzen. Gero laster apustuak ere egiten genituen, eta herri osoa pasatzen genuen.



## TERESA TELLETXEA

Ederki ibiltzen ginen umetan. Bastante txikiak ginenean asko jolasten ginen, denbora izaten genuen. Gero handitzen hasitakoan jolas gutxi eta lan gehiago egiten genuen: baratza zela, etxean laguntzen, postari bezala... Jolasen artean "Al korropatatasen" ibiltzen ginen korroan jarrita eta soka saltoan ere bai. Gurdia lotzeko soka bat hartu eta horietako batekin. "Al kotxerito lere" ere bai. Tabekin ere ibiltzen ginen: baserriarrek ekartzen zituzten tabak, haiek izaten zituzten ardiak eta. Txingoan eta gordeketa ere ibiltzen ginen, herriaren goiko alderdira joaten ginen, txokoak bilatu eta ezkutatzerara. Kanikak ere baziren eta kanika bat erdian jarri eta hori jotzen saiatzten ginen. Bote-boten ere ibiltzen ginen, lata bat zapaldu eta hura botaz. Orduan ez zegoen baloirik, pilota batzuk bai eta pala gutxi batzuk ere bai.



## JOSE MANUEL OLAZABAL

Koxkean ibiltzen ginen. Zortziko txanponarekin aritzen ginen, eta multzo bat egiten genuen denak "cruz" aldera begira jarrita. Bi metrora edo jarri eta bakoitzak zortziko beltzarekin edo duroarekin edo... diru handixegoarekin jotzen zuen multzoa eta buelta ematen bazuten txanponek, dirua lagun horrentzat zen eta jarraitu egiten zuen. Ez bazuen asmatzen, hurrengoak botatzen zuen. Txanpon guztiak bukatzen zirenean, berritik hasten ginen. Bestela pilotan ibiltzen ginen, beste jokurik ba al zen ba? Udaletxeak erosten zituen pilotak eta Polainenenan jaso, orduan alkatea Batiste Polainenekoa zelako. Normalean mutil handigoentzat erosten ziren, baina hara joaten ginen eske, eta ume txikiak izanagatik ere beti uzten zizkiguten. Denbora oso gutxi izaten genuen jolasterako ordea, eskolan errekreoan ere pilotan ibiltzen ginen, albiden ere bai, baina beti mutilak bakarrik. Neskekin ez ginen jolasten ezta deus ere.



## TXARO GOIKOETXEA

Gu txingoka eta soka saltoan ibiltzen ginen. Gero gomarekin beste jolas bat ere egiten genuen: goma geroz eta gorago igo eta jolasten. Ez genuen jostailurik, eta jolasteko denbora asko ere ez, etxera joan behar izaten genuen lanak egiten laguntzera.



## MARIA ESTER TOLOSA

"Txorro, morro, piko, taio, ke" esan eta gainetik elkar saltatzen ibiltzen ginen. Kanikekin ere asko, plazan hankarekin zuloa egiten genuen lurrean eta han kanikekin jolasten ginen. Gero gomarekin ere bai, soka saltoan eta gehiena gordeketa ibiltzen ginen. Ikuilu xaharreen eta. Bote-boten eta txingoan ere bai. Panpinak ere bagenituen eta horiekin ere bai asko, belarra hartu eta janaria ematen bezela eta... Arratsalde osoa kalean pasatzen genuen: parkean edo plazan ere bai asko.



## BEA MURO

"Al burro" jolasten ginen asko. Horretarako paretaren kontra jartzen ziren lagun asko, baten burua aurrekoaren hanka azpian, leerroan. Bat korrika etortzen zen atzetik eta ahalik eta lagun gehien saltoan gainetik pasatzen saiatu behar zen. Gero harrapaketa estiloan ere bai, "polis y kakos" deitzen genion. Oso ezaguna zen panpina "La Txabel", denetik zeukan: pelukeria, makillajea eta etxea ere bai. Gero aitarekin ere puzzle asko egiten nituen, erabat. Soka saltoan ere jolasten ginen eta botilek zituzten txapak hartu eta horiekin ere jolasten ginen, zirkuitoan... Dena den arratsaldeetan eskolaz kanpoko ekintzak nituen egunero, gimnasia erritmikoa eta arratsaldeetan ez nuen jolasteko denborarik. Jolastu ikastolan bertan edota udaran, auzoan egiten ginen, koadrilarekin.



## ANARTZ OLANO

Denbora asko genuen jolasteko, eskolatik atera 16:30ean eta 19:00ak arte edo, gero "tareak" egin behar ziren eta. Bitartean jolasten ibiltzen ginen: pilotan, frontenisean, futbolekin, kateton baloiarekin, porteritik porterira, harrapaketa... jolasteko tokiak berriz plazan, trinketean edo atzealdean ibiltzen ginen. Pilotan partiduak egiten genituen edo bostetik behera, huts egindakoan puntuak galtzen, ibiltzen ginen. Jostailuak ere asko genituen: pilotak, baloiak, patinak, erraketak, bizikletak...

Aurtengo denborapasetan, 2016ko karnabaletan helduentzako Aiso Ezautuz lehiaketan atera ziren ariketa batzuk jarri dizkizuegu.

## BAT ALA BESTEA?

Ariketa honetan erantzun egokia aukeratu beharko duzue.

1. Zein urtean argitaratu zen lehen aldiz Panpanoziri aldizkaria?
  - a). 2010ean.
  - b). 2011n.
2. Zein animala ageri da Aresoko armarrarian?
  - a). Lehoia
  - b). Otsoa
3. XX. mendearen hasieran zenbat biztanle zituen Aresok?
  - a). 457
  - b). 389
4. Noizkoa da Aresori buruzko lehen idatzia?
  - a). 1296. urtekoa
  - b). 1192. urtekoa
5. XIX. mendearen amaieran zegoen burdinoletako baten izena?
  - a). Ibiur
  - b). Olaberria
6. Zer da burtziña?
  - a). Beheko sutarako erabiltzen den pala
  - b). Baratzan ongarrria ateratzeko erabiltzen den pala

Erantzun zuzenak: 1.- b; 2.- a; 3.- a; 4.- b; 5.- b; 6.- a.

## ETXE GIROAN

Ariketa honetan herriko hiru etxe agertuko dira. 18 egoera egongo dira eta egoera bakoitza dagokion etxeari lotu beharko zaio.



Suteiko errota



Martaxenea



Zubidi

1. Hauetako zein etxetan zegoen Loba izeneko behorra?
2. Aresoarra autobusa nongoa zen?
3. Non harrapatu zitekeen jendea gaueko ordu txikietan eskua masa artean zuela?
4. Maiz, konporta ireki beharra non izaten zuten?
5. Nongo garaiek eman zien lekukoa Mantrolakoei?
6. Anttoni eta Doloxek non hartu zuten txokolate beroa?
7. Irina behar izanez gero, bertan erosi zitekeen.
8. Urte luzez pesta hasi eta bukatu bertan egiten zen.
9. Erreguarekin erabat ibiltzen zirela esanez gero, zein etxetaz ari gara?
10. Axuria labean egiteko nora eramaten zen sarritan?
11. Koheteekin esperimentuak egin zituzten bertako tubo batekin.
12. 1852. urtean hauetako zein eraikinaren ondoan zegoen Domingonea?

Erantzun zuzenak:

1.- Suteiko errota, 2.- Zubidi, 3.- Martaxenea, 4.- Suteiko errota, 5.- Zubidi, 6.- Zubidi, 7.- Martaxenea, 8.- Zubidi, 9.- Suteiko errota, 10.- Martaxenea, 11.- Zubidi, 12.- Suteiko errota.

## AISOKO HITZAK EZAGUTUZ

Zazpi hitz eta lau argazki jarri dizkizuegu, argazki bakoitzari dagokion izena jarri behar zaio. Kontutan izan bi hitz soberan daudela.


Txenda, mendolatza, zoie, ardagai, biribirgiñe, esporta, ehuntxale.



1



2



3



4

Erantzun zuzenak:

1.- Zoie, 2.- Esporta, 3.- Mendolatza, 4.- Ehuntxale.



## ZEIN IZEN JARRIKO ZENIOKE ARESOKO FESTETAKO AZKEN EGUNARI?

- Alperren eguna
- Setsoen eguna
- Popurri eguna
- Izuen eguna
- Zikiro eguna
- Herritarren eguna
- Abilidade eguna
- Hau de bukatzea ziek eguna
- Gure eguna
- Elkartzeko eguna
- Herri bazkari eguna
- Gaupasa eguna
- Gaurkoan ingoyu eguna
- Pesta laugarrena

Bidali zure proposamenak helbide honetara: [panpanoziri@gmail.com](mailto:panpanoziri@gmail.com)